

## X ERANSKINA

### Diru-laguntzak justifikatzeko dokumentu baimenduen zerrenda:

- Nominak.
- Gizarte Segurantzako TC-1 edota TC-2 dokumentuak.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenari buruzko atxikipenen aitortpenaren 110 eta 111 dokumentuak.
- Finantza-erakundeek egindako Banku-zorpetzeko karguen ziurtagiri edo dokumentuak, faktura baten datuak dituztenak, zenbakia eta seriea izan ezik.
- Faktura.
- Autofaktura (hirugarren interesatuak hori kobratzeari dagokion banku-mugimenduaren kopiarekin batera joan beharko du, edo horrelakorik ezean, baliokidea den beste edozein dokumenturen kopiarekin).
- "Jaso dut" dokumentua (derrigor hirugarren interesatuak hori kobratzeari dagokion banku-mugimenduaren kopiarekin batera joan beharko du, edo horrelakorik ezean, baliokidea den beste edozein dokumenturen kopiarekin).
- "Jaso dut" dokumentua hirugarren interesatuak sinatuta eta erakunde ordaintzaileko diruzainak egindako ziurtagiria, hartzailea, kontzeptua eta ordaindutako zenbatekoa adierazita, banku-mugimenduaren kopia eranstea ezinezkoa denean.
- Tiketak\* (gastuen kontzeptu-multzotan bildu ahal izango dira).

\* Ziurtagiri hauek baliozkoak izango dira, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuan, eta bertan arautzen diren baldintzetan ezarritakoari jarraiki (ikus honekin batera doan xehetasuna).

### Fakturak ordezkatzeko dokumentuak (tiketak)

Faktura egiteko betebeharra jarraian deskribatuko diren eragiketetan tiketa eginda bete ahal izango da, horien zenbatekoak **3.000 euro** gainditzen ez dituzenean, balio erantsiaren gaineko zerga barne:

- Txikizkako salmentak, entregatutako produktuen fabrikatzaile edo ekoizleek egindakoak barne.

- Eragin horietarako, txikizkako salmentak izango dira ondasun higigarri edo azienden entregak, non eragiketaren hartzaileak ez duen enpresari edo profesional gisa jarduten, baizik ondasun horien azken kontsumitzaile gisa. Beren ezaugarri objektibo, bilgarri, aurkezpen edo kontserbazio-egoerarengatik nagusiki enpresa- edo lanbide-erabilerakoak diren salmentak ez dira txikizkako salmentatzat hartuko.
- Anbulantziako salmentak edo zerbitzuak.
- Kontsumitzailearen etxerako salmentak edo zerbitzuak.
- Pertsonen eta beren ekipajeen garraioak.
- Jatetxe, taberna, kafetegi, ortxategi, txokolategi, eta antzeko dendek eskainitako zerbitzuak, eta uanean kontsumitzeko edari edo janarien hornidura.
- Dantza-areto eta dantzalekuek eskainitako zerbitzuak.
- Erabilera publikoko telefono-kabinen bidez, eta eramailea identifikatzeko aukera ematen ez duten txartelen bidez eskainitako telefono-zerbitzuak.
- Ile-apaindegiek eta apaindegiek eskainitako zerbitzuak.
- Kirol-instalazioak erabiltzea.
- Argazkiak errebelatzea eta argazki-estudioek eskainitako zerbitzuak.
- Aparkalekuak eta ibilgailuak aparkatzea.
- Filmak alokatzea.
- Garbitegien eta tindategien zerbitzuak.
- Ogasuneko Zuzendari Nagusiak enpresa- edo lanbide-sektoreekin edo enpresa zehatzekin lotuta baimentzen dituenak, enpresa edo lanbide-jardueren garapenean asalduek saihesteko.

Oharra: Tiket batek barne hartu behar dituen datuak ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuaren 7. artikuluan jasota daude.